



## Argindarraren salneurria are garestiagoa izango da

Argiaren prezioa goia jota dago. Azken hamarkadan, ia %70 garestitu da faktura, FACUA kontsumitzaileen elkarteak egindako azterketaren arabera, eta gehiago igoko da. Igoera honetarako, hainbat faktore daude. Batzuk ez dira oso argiak, beste batzuk, aldiz, ezagunak dira. Hotz-boladaren ondorioz, argindar kontsumoak gora egin du, eta, horrenbestez, baita energia eskaera ere. Horri aurre egiteko argindar gehiago ekotzi behar dute konpainiek, bitarteko garestiagoak erabilita. Hala, ekoizpen kostuak handiagoak dira.

Energia Ministerioaren arabera, faktore meteorologikoak ere badaude tartean. Energia merkeenak hidraulikoa eta haize-energia dira. Zergatik? Haizea eta ura beste energiarik behar ez delako argindarra sortzeko. Apenas egin du euririk, eta haize-boladak ez omen dira oso gogorrak izan. Zer dakar horrek? Bada energia beste bide batzuetatik lortu behar dela, erregai fosilak (gasa eta ikatza) erabilita, esaterako. Hauek dira energia garestienak, eta argindarraren prezioa zehazten dutenak.

Bada besterik. Segurtasun arrazoiak tarteko, Frantziak dituen 58 zentral nuklearretatik 20 geldituta ditu. Eskariari erantzuteko, beste herrialde batzuei, Espainiari tartean, erosi behar izan diote energia, eta horrek eskaera handitu du.

Horri guztiari Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (LPEE) azaroan adostutako petrolioaren prezioaren igoera gehitu behar zaio.

Horregatik, garestitzen jarraituko duela diote adituek, aurten batez besteko 100 bat euro igoko da ordaindu beharrekoa.



## Hamaika pertsona hil dira Euskadin gripearen epidemia hasi denetik

Hamaika pertsona hil dira Euskadin gripearen aurtengo epidemia hasi denetik, eta gripeak gorakada txikia izan du urtarrileko bigarren astean aurreko astearekin alderatuta.

Osakidetzak jakinarazi duenez, gripearen ondorioz ospitaleratutako pertsonetatik beste bost pertsona hil ziren urtarrileko bigarren astean, eta, beraz, dagoeneko hamaika dira hildakoak. Bestalde, guztiak ere arrisku taldeetakoak eta 64 urtetik gorakoak ziren, eta ia erdiek ez zuten txertoa hartuta.

Hala ere, gripearen inguruan aparteko alertarik ez dagoela adierazi du Osasun Sailburuak, Jon Darponek. Honen arabera, tasa epidemiologikoa ez da aurreko urteetako baino askoz handiagoa.



## Onartu egin dute ume bati heriotza desiratzeagatik jarritako kereila

Alzirako Epaitegiak (Valentzia) onartu egin du toreroa izan nahi duen ume bati heriotza desiratzeagatik Eibarko bizilagun baten aurka jarritako kereila. Sare sozialen bidez zabaldu zuen mezu batean, minbizia duen umeari hil egingo zela esan zion. Auzitegiaren iritzian, adierazpen horiek iraingarriak izan litezke, eta delitu bat egin duelakoan tramitera onartu dute kereila hori.

Toro de Lidia fundazioaren arabera, abenduaren 12an egindako adiskidetzegintzan ez zuten akordiorik lortu, Eibarko bizilagunak gertatutakoa ukatu zuelako eta ez ziolako barkamenik eskatu toreroa izan nahi duen mutikoari.

Arrazoi horregatik, Adrianen sendiaren izenean kereila jartzea erabaki zuen fundazio horrek, adierazpenak iraingarriak direlakoan, eta tramitera onartu du epaileak.



## Petronor enpresak sei asteko etenaldia hasi du

Petronor enpresak astelehenetik aurrera sei astez gelditu du jarduera, 1968an sortu zenez gero egindako etenaldi luzeena.

Coque, Refineria 2 eta Bihurketa Eremuko Hustutze Sailari eta beste zenbait atalei eragin die etenaldiak. Guztira, instalazioen hiru laurden gelditu dituzte. Instalazioak berrikustez gain, inbertsio berriak egin eta lan-prozeduretan teknologia berrienak ezarriko dituzte.

Ohiko lan-taldeaz gain, Petronorrek 1.000 langile izango ditu eguneko, eta 2.000 izatera ere irits daitezke. Horretarako, enpresak 55 enpresa kontratatu ditu, erdia bertakoa. Espainiako findegi handiena da Petronor. 940 langile ditu ohiko lan-taldean.

## McLaren laranja zaleak zoratu ditu

Egunotan, McLaren Honda MP4-32 modeloaz ezer gutxi dakigu: Fernando Alonsok datorren denboraldian gidatuko duen automobila izango dela eta datorren otsailaren 24ean aurkeztuko dutela. Hala eta guztiz ere, azkeneko ordu hauetan diseinuaren inguruko zurrumurru ugari zabaldu dira, zaleen ilusioa piztuz.

Automobil-talde ingelesak Twitterren laranja idatzitako mezu baten bidez iragarri zuen auto berriaren aurkezpena. Horrez gain, ordu batzuk lehen Genevako Automobil Azokan eserleku bakarrek diseinu berezi bat erakutsi zuten, kolore beltza eta laranja margotua.

Gertaerok sare sozialetako zaleak iraultzatu dituzte, McLarenen diseinu berriak bere hastapenetako kolorera itzul daitezzen eskatuz. Izan ere, orduan talde ingelesak entrenamendu batean soilik erabili du kolore hau, McLaren MP4-20 modeloan.



## Patataz egindako garagardoa sortu dute Araban

UPV-EHUko ikasle talde batek patataz egindako garagardoa bat sortu dute, eta "Gastheiz" izenarekin merkaturatu dute.

Garagardoa horren sustatzaileek, Ainhoa Ocio ingeniari kimikoak eta Jone Conde Komunikazio arduradunak, azaldu dutenez, edariarekin "arabar



harrotasunaren ikur" da.

"Euskadin ehunka mila pertsona sentitzen gara *patateroak*, eta, horregatik, gure garagardoa patatazkoa izan behar zuen", esan dute.

Edaria Araban landatutako patatekin (Miren eta Mona Lisa motatakoak), lupuluarekin, maltarekin eta garagarrarekin eginda dago.

Ocioren eta Conderen esanetan, ekimen honekin gogora ekarri nahi izan dituzte garagardoaren lehen ekoizleak, Mesopotamiako duela 7.000 urteko emakumeak.

## Bizkaiko sagardo denboraldia abian da

Asteazkenean abiatu zuten Bizkaiko sagardo denboraldia, Andoni Aizpuru kazetariaren eskutik. Aurtengo sagardoari dagokionez, "oso usaintsua da, fruta usain freskoak dituena eta kolore ilunekoa".

Aurkezpen ekitaldia Amorebieta-Etxanoko Uxarte sagardotegian egin zuten, eta Juan Zuriarrain enologoak azaldu zuenez, sagardoak "txinparta fina izateaz gain, edalontzian bits edo apar gehiago uzten du". Gainera, aurtengo sagardoaren alkohol graduazioa % 6 eta 6,5 artean dago, sagarrek "azukre orekatuagoa" ekarri baitute, orokorrean.

## EGURALDIA

**Larunbatean**, oro har, eguzkitsua baina goi-hodei eta erdi-mailako hodei batzuekin. Zeruan ez dugu aldaketa askorik espero eta ostarteak zabalak izango dira. Tenperaturak beste koska bat egingo du gora eta maximoak epelagoak izango dira; 9-12 °C arteko balioak lortuko dira. **Igandean**, aldiz, giroa apur bat nahastuko da. Hodeitza aldakorra izango da eta ez dugu baztertzan tarteka euri apur bat egitea. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperatura pixka bat jaitsiko da.